

BANKARIAK BETI BANKARI



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Sumer (Mesopotamia), K.a. XXIV. mendea. Lagasheko Urukagina erregea, boterea lortu bezain pronto, askotariko erreformak egiten hasi zen. Besteak beste, neurrigabeko zorrak barkatzea eta alargunen eta umezurtzen zerga-salbupea jarri zituen indarrean. Neurri horiek erakusten dute lehen zibilizazio haietan, ekoizpen soberakinak lortu bezain pronto, burokratak, zergak, zorrak, mailegatzailak eta, beraz, nolabaiteko lehen banku-jarduerak ere agertu zirela. Eta gehiegikeriak ere bai.

Hauxe dio idazkera kuneiformean idatzitako ohol batek: “Adakalak zilarrezko 120 sikloko mailegua jaso du Urdulazagarengandik, 60tik 5eko interesarekin. Siqen hilabetean itzuliko du zenbatekoa”. Beste batzuk larriago zebiltzan eta interes altuagoak onartu beste erremediorik ez zuten: “Ziyatumen seme Irrarak Usellirengandik zilarrezko 60 sikloko mailegua jaso du, 60tik 15eko interesarekin. Zenbatekoa hurrengo ilargiarekin batera itzuliko du. Kontra-



KURPFALZISCHES MUSEUM

tuaren zina Kalki eta Adada lekukoena eta Jainkoen aurrean egin da”.

Errealitate horretan tenpluak egoera hobeezinean zeuden, nekazaritzako eta abeltzaintzako soberakinak gordetzen baitzituzten. Denboraz, soberakin haiekin espekulatzeko hasi ziren eta kleroa, erregeak eta, oro har, aginte politiko nahiz ekonomikoak zutenak etekin handiak lortzen hasi ziren jarduera haiekin. Familia boteretsuek, belaunaldiz belaunaldi, dirua interes altuekin mailegatzeko, merkataritza negoziotetan bitartekaritza lanak egiten, besteen ondasunak gordetzen eta horiekin espekulatzeko zuten, etekin gero eta handiagoak lortzeko. Esan genezake orduan sortu zirela banku jarduera profesionala eta bankari dinastiak.

1893an Pennsylvaniako Unibertsitateko ikerlariak Nippur hirian indusketa lanetan ari zirela, 900 buztinezko ohol topatu zituzten. Testuak itzuli zituztenean konturatu ziren Babiloniako Murashu familiaren hiru belaunaldiko

‘Babelgo dorrea’ (1587) egile ezezaguna. Bertakoa, Babiloniakoa zen Murashu familia, K.a. VI. mendean egindako jarduerengatik lehen bankari dinastiatzat jo daitekeena.

kontabilitatea eta burokrazia kontuak zeudela jasota ohol haietan eta horrek antzinako Mesopotamian gutxienez bankari dinastia bat bazegoela adierazten zuen. Testuetan 2.500 bezeroren izenak agertzen dira eta haien esanetara 60 agente komertzial izatera iritsi zirela ere jasota geratu zen buztinean. Baita Elam lurraldearekin edo Susa hiriarekin tratutan zebiltzala ere.

Gainera, testuek jasotzen dutenez, Murashutarrak Babilonia erori aurretik (K.a. 539) ari ziren bankugintzan eta pertsiarrek, Ziro Handia buru, hiria konkistatu ondoren ere jardunarekin jarraitu zuten, erregearekin berarekin negoziak eginez. Agintean dagoena dagoela, bankariek patrikak betetzen jarraitzen baitute, eta hala izan da Antzinarotik. ■



AIKATERINI LASKARIDIS FOUNDATION

Antikiterako altxor agorreztina

1900 eta 1901 artean, Greziako Antikitera uharte inguruko naufragio bategan Antikiterako Mekanismoa deritzon pieza aurkitu zuten, K.a. 150-100 urteen ingurukoa. Oraindik ez dago erabat garbi gailuaren funtzioa, baina adituen esanetan, konputagailu analogikoa zen, kokapen astronomikoak eta eklipseak aurreikusteko diseinatua.

Ontzi-hondarretan aurkitutako objekturik preziatuena izanagatik, ez da bakarra. Ehun urtetik gora pasa dira aurkitu zutenetik eta oraindik urpeko arkeologia lanak emaitzak ematen ari dira. 2017ko kanpaina aurkitutako 37 pieza daude orain ikusgai Pireon, Atenasko portuan, uretan sartuta oraindik, gatzgabetze prozesu mantsoa errespetatuz. ■